

Euskal AEko ingurumen-zergak 1.284 milioi eurora iritsi ziren 2022an

2022an ingurumen-zergak Euskal AEko zerga guztien % 6,7 izan ziren

Euskal AEko ingurumen-zergen zenbatekoa 1.284 milioi eurokoa izan zen 2022an, aurreko urtean baino 78 milioi gutxiago (-% 5,7), hau da, BPGren % 1,5, Eustatek landutako Ingurumen Zergen Kontuaren arabera.

Kontu hori Ingurumen Kontuen Sistemaren parte da, eta Eurostaten metodologiari jarraituz lantzen da. Bere esparrua honako zerga hauek osatzen dute: zerga-oinarritzat dutenak ingurumenean eragin negatiboa, egiaztatua eta espezifikoa duen materialen baten unitate fisikoa (edo antzekoa), SEC2010 – Kontuen Europako Sistemaren zerga gisa identifikatua.

2022an ingurumen-zergak Euskal AEko zerga guztien % 6,7 izan ziren, 2021ean baino puntu bat gutxiago.

Ingurumen-zergak, **ingurumenaren arloko irizpidearen** arabera, hiru kategoriatan sailkatzen dira: Energiaren gaineko zergak, Garraioaren gaineko zergak eta Kutsaduraren eta baliabideen gaineko zergak.

insertatabla_19577

Azpitarratzekoa da Energiaren gaineko zergak sortutako diru-sarreraren jaitsiera, batez ere prezio elektrikoaren igoera kontrolatzeko hartutako premiazko neurri erregulatzailen ondorioz

Ingurumen-zergen izaerari dagokionez, lehenik eta behin, **energiaren gaineko zergak** nabarmentzen dira, zenbateko handiena erregistratu baitzuten, eta 1.105 milioira iritsi ziren 2022an, ingurumen-zerga guztien % 86,0 izanik. Horiek izan ziren jaitsiera handiena izan zutenak ere, % 7,4 2021. urtearekin alderatuta. Jaitsiera hori Hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren bilakaeraren ondorio zuzena izan zen: 925 milioi, energiaren gaineko zergen % 83,8, eta % 7,7ko jaitsiera, hau da, 2021ean baino 77 milioi gutxiago.

Multzo horretan, Hidrokarburoen gaineko zerga bereziari garrantzian jarraitzen diote Berotegi efektudun gasak igortzeko eskubideek (140 milioirekin), eta 2021. urtearekin alderatuta % 57,0 igo ziren arren isurketa-eskubideen batez besteko prezioen igoera nabarmenaren ondorioz (% 46,8), ez dute konpentsatzen multzo honetako beste zerga batzuen eragin negatiboa. Aurrezki-plan eta efizientzia energetikoaren errekargua, 12 milioirekin (-% 7,4) eta CORES baliabidea, 14 milioirekin (-% 1,4), ere zerga-multzo horretakoak dira.

Multzo berean, Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eta Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren batuketa 13 milioira iritsi zen, 62 milioi gutxiago, 2021. urtearekin alderatuta % 82,3ko jaitsiera. Jaitsiera horren jatorria Elektrizitatearen txikizkako merkatuetan prezio-igoeraren eragina arintzeko aplikatu ziren premiazko neurrien


multzoa izan zen. Bestalde, azpimarratzekoa da 2021ean ez zela erregistratu Ur kontinentalak energia elektrikoa ekoizteko erabiltzeagatiko kanonetik eratorritako diru-sarrerarik, hori arautzen zuen Dekretua bertan behera utzi izanaren ondorioz.

Bigarrenik, **garraioaren gaineko zergak** 164 milioi euroko ekarpena egin zuten 2022an, hau da, ingurumen-izaerako zerga guztien % 12,8, aurreko urtean baino % 4,1 gehiago. Kategoria horretan Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga nabarmentzen da: 2022an 138 milioi euro, zerga-multzo horretako % 84,5.

Azkenik, **kutsaduraren eta baliabideen gaineko zergak** ingurumen-izaerako zerga guztien % 1,2ko ekarpena egin zuten: 16 milioi euro, 4 milioi gehiago, eta % 39,5 igo ziren aurreko urtearekin alderatuta. Zerga-multzo honetako igoera, batez ere, Negutegi efektudun gas fluoratuen gaineko zergaren ondorio da, % 81,0 igo baitziren, aurreko urtean baino 3 milioi gehiago.

Zerga-motaren arabera sailkapenari dagokionez, **BEZik gabeko produktuen gaineko zergak** eta **Inportazioen gaineko zergak** dira ingurumen-zergen ehuneko handiena biltzen dutenak, % 46,0, hain zuzen ere; 2022an zifra 1.001 milioikoa izan zen, ingurumen-zerga guztien % 77,9, 2021ean baino 5,1 puntu gutxiago.

Zergen banaketa ehunekotan Euskal AEn (%). 2022 (aurrerapena)



Iturria: Eustat. Ingurumen kontuak. Ingurumen zergen kontuak


Bestalde, ingurumena xede duten **Bestelako gastu arruntak** % 41,6 izan ziren, 2021ean baino 1,4 puntu gutxiago, eta 139 milioi eurora iritsi ziren. Azkenik, **Ekoizpenaren gaineko beste zerga batzuen** barruan % 18,5 ingurumen-zergei dagozkie, 2021ean baino 6 puntu gehiago, guztira 145 milioi euro, eta 2021. urtearekin alderatuta igoera % 54,3koa izan zen, beraz.

Ingurumenaren arloko presio fiskalaren Europako analisi konparatiboa

Fiskalitate berdea, BPGren gaineko ingurumen-zergen bidez bildutako diruaren ehuneko gisa neurtua, 2022an % 1,5ekoa izan zen Euskal AEn, herrialde hauen azpitik: Danimarka (% 2,4), Frantzia (% 2,1) eta Alemania (% 1,6); baina Irlandaren (% 0,9) eta Luxenburgoren (% 1,2) gainetik eta Espainiaren eta Lituaniaren parean. 27-EBko batez bestekoa % 2,0 izan zen. Taularen goiko muturrean, % 3tik gorako tasekin, Grezia, Kroazia edo Bulgaria daude.

2022an, 2021arekin alderatuta, 27-EBko herrialde kide askotan jaitsi dira orokorrean ingurumen-zergak BPGren ehuneko gisa, eta salbuespenak Bulgaria, Errumania eta Grezia dira.

Ingurumen-zergak, BPGren ehuneko gisa, herrialdeka. 2022



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ingurumen kontuak. Ingurumen-zergen kontuak

Jarduera-adarren eta etxeen araberako analisisia

Etxeek ingurumen-zerga guztien % 46,8ko ekarpena egin zuten. Zerga-motaren arabera: Garraioari dagozkion zergen % 78,1 eta Energiaren gaineko zergen % 42,7.

Jarduera-adarrei dagokienez, ingurumen-zerga guztien % 53,2 egokitu zitzaizen; eta zerga-mota kontuan hartuta, nabarmentzekoa da Energiaren gaineko zergen % 57,3ko ekarpena eta Garraioaren gaineko zergen % 21,9koa.

Aldi berean, Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa batera hartuta, adar horrek guztizkoaren % 35,9ko ekarpena egin zuen, eta ondoren Manufaktura Industriak % 15,4koa.

insertatabla_21963


Ingurumen-zergen lurralde-azterketa

2022rako ingurumen-zergen lurraldeen araberako banaketak erakusten du Bizkaiak guztizkoaren % 56,1 metatu zuela, Gipuzkoak % 29,8 eta Arabak gainerako % 14,1.

Gainera, 2022an Euskal AEn ingurumen-zergen jaitsiera % 5,7koa izan bazen ere, ikusten da Gipuzkoan jaitsiera hori % 12,3koa izan zela 2021arekin alderatuta, ondoren Arabakoa % 10,6koa eta Bizkaian -% 0,3koa.

insertatabla_19578

Ingurumen-zergak, lurraldeen BPGri dagokionez, Bizkaian % 1,6 izan ziren 2022an, eta bai Araban eta bai Gipuzkoan, 2022an % 1,4.



Iturria: Eustat. Ingurumen kontuak. Ingurumen zergen kontua

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62